

Joxe Zubizarreta Armaixa Txiki
Elgoibar, Gipuzkoa

Aurkibidea

Biografia

Zintak

EGB-063

- **Proiektua:** Elgoibar 1936
- **Elkarrizketatzailea(k):** Odriozola Sustaeta, Iñaki - Otegi Arregi, Hodei
- **Data:** 2008-05-27
- **Iraupena:** 55 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Elexpuru, Juan Martin

Pasarteak

1. Eibartarrak "gorriak" ziren

- **Erref:** EGB-063/001
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:18

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Sozialistak
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

<p>Eibartarrak "gorriak" ziren. 1959an Mitxelena eta Uztapide bertsoan Eibarren. Gaia: bata eibartar "gorria" eta bestea San Pedro, zeruko ateko zaindaria.</p>

2. Sallobenten ez ihes egitea erabaki zuten baserritarrek

- **Erref:** EGB-063/003
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:01:36. **Bukatu:** 00:03:12

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:

1936ko irailaren 21, astelehenez, sartu ziren frankistak Elgoibarren. Sallobenten, meza ondoren gizonak erabaki zuten ez ihes egitea, bertan geratzea. Egunero egunkaria irakurtzen zuen baserritar batek eman zituen azalpenak.

3. Frankistak Azkaraten behera Elgoibarrera sartzen

- **Erref:** EGB-063/004
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 00:03:12. **Bukatu:** 00:05:44

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera

Laburpena:

<p>Bera ganadu zain zegoen frankistak Azkoitia aldetik sartu zirenean. 13 urte zituen. Ez zegoen pinudirik garai hartan. Etxera etorri, izara zuria leihoan ipini eta begira geratu ziren. Milizianoak ihesi ikusten zituzten. Esaten zuten teniente bat eta azkarregi sartu zirela Elgoibarren eta arazoak izan zituztela. Astelehena zen.</p>

4. Ama eta arreba frontea zeharkatzen

- **Erref:** EGB-063/005
- **Iraupena:** 0:03:36. **Hasi:** 00:05:44. **Bukatu:** 00:09:20

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera

Laburpena:

<p>Arreba gazteagoa Bilbon zegoen eta ama bila joan zitzaion trenez. Alaba hartu eta mendiz mendi zeharkatu zuten frontea, Arrate aldetik, komeria ugariren ondoren. Martitzena zen. Emakume bat horrela hil ei zuten.</p>

5. Gerra zazpi hilabetez gelditu Elgoibarren

- **Erref:** EGB-063/006

• **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:09:20. **Bukatu:** 00:11:30

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Erregearen familiako bat Morkaikon hil zen. Gerra zazpi hilabete geldi egon zen. Soldaduak kuartelatuta auzoan. Karakaten kanoiak zeuden. Bonbardatzera zihoazen hegazkinak ikusten zituzten pasatzen. Burdinazko Gerrikoaz.

6. Gerrikoaren koloreagatik hil zuten mutilaren istorioa

- **Erref:** EGB-063/011
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:25:02. **Bukatu:** 00:26:26

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

<p>Gerrikoaren koloreagatik hil zuten mutilaren istorioa. Handik urte askora, hondeamakinaz lurra harrotzen zebiltzala baserri baten ondoan, hezurrak topatu zituzten, gerrikoarekin batera. Horrela identifikatu zuten.</p>

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-02-10

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com